

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea zabor bilketako zerbitzu publikoa emateagatik ordaindu beharreko tasaren 2018ko lehen sei hilekoaren errolda, eta kobrantza epea irekitzea**

Eginda dago zabor bilketako zerbitzu publikoa emateagatik ordaindu beharreko tasaren 2018ko lehen sei hilekoaren errolda. Hortaz, honen bidez, errolda hori jendaurrean jarriko da hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, interesa dutenek aztertu ahal izan dezaten eta, hala badagokio, egoki deritzeten alegazioak eta erreklamazioak aurkeztu.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onartutzat emango da, eta hasiera emango zaio kobratzeko aldiari.

#### I. Ordaintzeko epea

A) Borondatezko epea: 2018ko maiatzaren 1etik uztailaren 2ra.

B) Betearazte aldia: 2018ko uztailaren 3tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu behar harko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, adierazitako epeetan.

#### II. Ordaintzeko lekua eta modua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek, udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako zergen Foru Arau orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Lapuebla de Labarca, 2018ko martxoaren 23a

*Alkatea*

**MAIDER MURILLO TREVIÑO**